

AZKEN POTTOKA

Oinharrizko euskara

Patxi Ugalde



Txema Urrutia (Argazkia)

No se trata de un artículo montaño en el sentido convencional del término, aunque todo sucede en el monte. Quizás el autor lo ha soñado. Tal vez creyó levantarse de la cama, pero se quedó de nuevo dormido. O puede que no.

Igande goiza da. Esnatzen naiz eta berehala begiratzten dut eguraldia. Ez dago txarto, baina ondo ere ez. Hodei asko eta zolua bustita. Euria ote da? Ez dirudi, haizea dabil eta. Nahiko berandu da, ia-ia goizeko zortzirak. Zer egin? Gauza haundirik ez, ez baitut denbora luzerik. Ba dakit. Bueltatxo bat emango dut Bilboko inguruko mendietatik. Ganekogortara joango naiz, eta Ganekogortatik Laudiora. (Mendizale bilbotarrentzat ez da inolako azalpenik behar. Beste guztientzat: Bilbotik Laudiorako mendi-bidaia edo trabesia, oso esaguna eta erabiha da. Erraza eta tipikoa). Aspaldidanik ez naiz leku horietan zehar ibili, eta gustora berrikusiko ditut inguru haik. Erabakia artu eta gero ohetik jaikitzen naiz, urjo bat eman, jantziak ipini, gosaria prestatu eta jan; eta azkenez kalera.

Goizeko bederatzietan hasten naiz mendira igoten. San Adrian hauzoa atzean utzi; autobideko zubia pasa eta Pagasarriako bide arrunta hartzen dut. Gaur, igandero bezela, hamaika lagun (1) dabil bide honetan. Hemen famili oso bat, hor aitona batzuk, han neska-mutil koadrila ederra... Era askotako jendea (2) ikusten da Pa-

gasarriko bidetik. Seguraski bilbotar gehienek egin dute, behin gutxienez, Pagasarriko txangoa.

Ordubate batetan Pagasarriko zelaira jotzen dut. Hemen bai izugarriko zarata! Pertsonak ehundaka (3) leku batetik bestera. Talde batzuk kantatzen ari dira, beste batzuk futbolera jolasten, korrikan... lasaienek ogitartekoa jaten dute errefugioko inguruetan. Errefugiotik ardo edo garagardo botilak ateratzen dituzte; bokadiloak bustitzeko eta gorputzera hobeto sartzeko. On egin!

Nik neure bidetik segitzen dut, oraindik zati luze samarra (4) geratzen baita Genekortara heldu arte. Orain lehen baino jende gutxiago ikusten da bidetik. Gehiena Pagasarrin geratzen da. Niretzat hobe. Zenbat eta zarata gutxiago, poza-go (5) nabil. Iparraldeko mazelako bideari jarraituz, pausoka-pausoka garaia hartzen noa. Orain dela hogeitabost urte edo (6), parte honetan ba zeuden pago batzu. Ederrak benetan, eta geriza zabala eta freskotxoa ematen zuten. Udan, haien gerizpean gelditu ohi ziren artaldeak. (Gezurra ba dirudi ere (7), aspaldi ba zegoen artalderik ingurune hauetatik). Gaur egun, ordea, ez dago pago bat ere geratzen. Eta artalderik ere ez, noski.

Azken esfortzuaren ondoren, Ganekortaren tontorrera heltzen naiz. Bi ordubate eta pixka bat gehiagotan egin dut igoera. Lehen ordubate eta hiru laurden besterik ez nuen izan behar, baina urteak ez dira alferrik pasatzen. Tonto-

rrean alditxo bat gelditzen naiz, paisaiari begira eta oroipenak hausnar (8). Bide osoan zehar zerbait igarri dut faltan, baina ez dakit zer ote den. Halako batetan konturatzen naiz: pottokak. Duela urte batzuk, Pagasarriko zelaietan naiz Ganekortako mazaletan ugari zebiltzen (9) pottokak. Haien irudi begikoeak eta irrintzi alaiek, halako bizi jatorra edo sorterazi ohi zuten bakartasun haue-tan. Gaur, berriz, ez dut pottokarik ikusi. Eta mendia, jakina, lehen baino tristeago dago.

Arazoari garrantzi gehiagorik eman gabe, jaisten hasten naiz. Tontoretik hegoaldeko ma-zelako zidorra hartzen dut. Oso zidor aldapatsua baita poliki-poliki ibili behar da handik. Zidorretik Laudioako inguruko mendiak ikusten ditut, eta haien itxura ikusiz, hotz geratzen da nere biho-tza. Hura ez da mendia! Hura basamortua beste-rik ez da. Alde guztietatik pistaz gurutzatutako basamortua. Ez zuhaitzik ez belarririk ere. Hau paisai tristea!

Neure pentsamenduetan sartuta eta kontu-ratu gabe, zidorra bukatzen da. Atzera ez egite-ko, mendian zehar abiatzen naiz behera. Ez dago problemarik, Arantzatzuko iturria aurkituko dut eta bertan Laudiorako bidea. Baina jaitsei eta jaitsei eta iturri famatsua ez da inondik agertzen. Non ote dago? Eta ni, non ote nago? Hemendik ez da inolako biderik ikusten. Pistak ugari dau-de, ordea. Nondik joan? Zein pista hartu?

— Pista madarikatua!, esaten dut boz goraz. (10) Eta ahots batek erantzuten du:

— Ez kexa mutil! Zeuek duzue errua. Harriturik geratzen naiz. Nondik sortu da eran-tzuna? Alde batera eta bestera begiratzen dut, baina ez dago inor.

— Nork egin du hitz?, galdegiten dut. Zuhamuxka batzuren atzetik, pottoka baten burua sortzen da, eta honela mintzo:

— Neuk.

Lehen baino harrituago, berriro itauntzen dut:

— Eta nor zara zu?

— Mendi hauetako azken pottoka naiz. Eta ez dut zure kexarik ulertzen. Zuek, gizonok, egin duzue triskantza hau. Lehenik betiko zuhaitzak ebaki zenituzten. Pagoak, haritzak, gaztainon-doak... zuhaitz eder guzti haik eraman zenituz-ten zuen etxeak eta itsasontziak egiteko, eta batzutan egurra erretzeko bakarrik. Hori egin eta gero makina bat pinu (11) ezarri zenuten. Pinuhorriek belar goxoa estali zuten eta belarra pixkanaka pixkanaka lehortu egin zen. Ondoren, leku guztietatik egin zenituzten pistak, pinu han-diak ateratzeko. Pista hauek betidaniko bideak (12) apurtu dituzte. Eta azkenez, pinuak berak ere kendu dituzue. Orain begira, zuen portaera basaren ondorio negargarriei. Aintziniko basoak desagertu dira, ez da belar goxorik geratzen, eta mendi emankorrak basamortu triste eta har-ritsu bihurtu dira. Nire lagun guztiak aspaldian joan dira, bestelako lurren bila, jateko eta bizi-tzeko beste lekuren bila. Ni azkena naiz. Eta nik ere laster joan beharko dut. Orain joan hara zeure herrira, eta hau guztiau konta.

Bere hitzak bukatu eta pottoka urrundu da. Bihotza kizkorturik (13) Laudiora abiatzen naiz. Tarte luzetxo baten ondoren Santa Luzia ermitan nago. Hango iturrian aurpegia garbitzen dut. Oraindik ez dakit dena amets bat izan ote den. Ezin dut sinetsi. Eta zuek, irakurleek, zer uste duzue?

ESALDIAK

(Frases hechas, difíciles de encontrar en el diccionario, pero que son de uso muy corriente)

| | |
|--|----------------------------------|
| (1) Hamaika lagun | mucha gente |
| (2) Era askotako jendea | todo tipo de gente |
| (3) Pertsonak ehundaka | mucha gente |
| (4) zati luze samarra | un trecho largo |
| (5) Zenbat eta zarata gutxikiago, pozago ... | cuanto menos ruido, más contento |
| (6) Orain dela 25 urte edo | hace unos 25 años |
| (7) Gezurra ba dirudi ere | aunque parezca mentira |
| (8) Oroipenak hausnar | rumiando los recuerdos |
| (9) ugari zebiltzan | abundaban |
| (10) boz goraz | en voz alta |
| (11) makina bat pinu | cantidad de pinos |
| (12) betidaniko bideak | los caminos de siempre |
| (13) bihotza kizkorturik | con el corazón en un puño |